

**2/2018 TXOSTENA, URTARRILAREN 10ekoa, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN A HOLKU-BATZORDEARENA****XEDEA: KONTRATU ERRESERBATUEI BURUZKO GOBERNU
KONTSEILUAREN AKORDIO-PROPOSAMENA****I.- AURREKARIAK.**

Hauxe dio Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen LAUGARREN xedapen gehigarriak (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora): "Ministroen Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako [...] organo eskudunen erabakien bidez, gutxieneko erreserba-portzentajeak ezarriko dira, zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erresebatzeko..."

Horregatik egin da orain aztertzen gabiltzan Gobernu Kontseiluaren Akordio proposamena, eta horren inguruko txostena egingo du batzorde honek.

II. – AURRETIKO GOGOETAK.**TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua b) apartatuak dioenez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen aholkularitza-eginkizunen artean dago "Kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoez informatzea:

- Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukeraberdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta."



Eskumen hori ez zaienez batzordeei esleitu, 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua arabera, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio txosten hori onestea.

III. – EDUKIA.

Akordio-proposamenak guztiz aipatzen du adierazitako LAUGARREN xedapen gehigarriaren edukia, baita bertan adierazitako zerbitzu eta horniduren CPV kodeak ere (9/2017 Legearen VI. eranskina).

Ondoren, akordioaren testua agertzen da, eta akordioaren eranskinak aipatzen dituen kontratu erreserbatuei buruzko jarraibideak onesten dira bertan.

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen LAUGARREN xedapen gehigarriaren testua argia da (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzendarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Bada, akordio-proposamenak bete egiten du LAUGARREN xedapen gehigarria eta, gainera, behar diren datuak ematen ditu, Lege beraren VI. eranskinarekin bat etorriz.

Gure ustez, arrazoizkoak eta betetzeko modukoak dira bai Legeak markatutako CPV koderen batean adierazitako xedea duten kontratuen portzentajeen muga bai horren zenbatekoa.

Beste alde batetik, justifikatutako arrazoiren baten ondorioz jarraibideak bete ezin izan direlako salbuespenen bat ezartzeko aukerak -adibidez, langileei subrogatutako prestazioak, bidezko hitzarmen kolektiboaren edo lan-araudiaren arabera-, salbuespena izan arren, kasu batzuetan bai uzten du nolabaiteko tartea kontratazioaren arau-esparruaren errealitatean.

Azkenik, uste dugu urtean behin Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari memoria bat bidaltzeko eskakizuna egokia dela kontrola egiteko, erraz eta argi, jarraibideak eraginkorrak direla bermatzeko.

V.- ONDORIOAK.

Hori dela eta, proposatutako akordioaren testuari ez zaionez eragozpenik ikusi, testuaren aldeko txostena egin da.